

Bidebieta



Jaietako suzeria

Urtero bezala, Bidebietako Txanpontxo jaiekin, udako festa erromesaldia hasiko da Donostian. Ohiko ekitaldiez gain, aurten karaokea izango da lehen aldiz.

Bi dira aurtengo festetako berrikuntza nagusiak. Batetik, kontzertuak betiko tokian izango diren arren —instituto ondoko areto futbol zelaian—, bertaratutakoek ez dute zertan eguraldiarekin kezkatu izango. Izan ere, aurreko urteetan ez bezala, karpabaten babesean egingo dira. Bestetik, igande iluntzean, sardina jatearen ondoren, ka-

raokea egingo da lehen aldiz, frontoi ondoko zabalgunean.

Danborrada jendetsua

Nabarmentzekoa da, bestalde, danborrada aurreko urteetakoak baino jendetsuagoa izango dela; 40 bat lagunek parte hartuko dute eta, danborrariekin eta kantinera jantzita aterako diren umeekin, Pa Txanga La Nuestra txaranga eta zaldiak

ibiliko dira auzoko kaleetan. Herri kirolak ere izango ditugu Txanpontxo jaietan. Joan den urtean, motozerraz enborrak aulki edo mahaitxo nola bihurtu daitezkeen ikusi genuen. Aurtun, Ipar Euskal Herriko jokoak izango ditugu. Kañameres eta Navarra aizkolariak, Ostolaza harrijasotzailea eta plazaz plaza esatari lanetan dabilen Sarasola etorriko zaizkigu.

Egitaraua

Ostirala 28

17:30 Buruhandiak Haur Txokotik aterako dira

18:00 Herri kirolak haurrentzat, Salvador Allende parkean. Institutuko ikasleen "Bailando con la muerte" obra, Kontadorezen

18:00 Gaztetxoentzako jolasak, Parke Berrian

18:30 Atotxa Abesbatzaren emanaldia, zahar etxean

19:00 Txokolate jatea, Salvador Allende parkean

20:00 Barrikotea, Parke Berri ondoko saskibaloia zelaian

21:30 Covesion, Bon Scott Band eta Lujuria taldeen kontzertua

22:00 Dantza lehiaketa frontoian

Larunbata 29

10:00 Txokolate jatea

11:00 Edadetuentzako hamaiketako

koa, zahar etxean. Gaztetxoentzako bizikleta lasterketa

16:00 IV. Mus Txapelketa Guardaplata eta Txiki tabernetan

17:00 "Euskal Herriko itsasoa" txotxongilo emanaldia, frontoian

18:00 Danborrada institututik aterako da

20:30 Oilasko afaria frontoian

21:30 Tierra Santa, Hiverland eta Amset taldeen kontzertua

23:30 Dantzaldia Orquesta Donosti

taldearekin. Zezensuzkoa

Igandea 30

10:00 Krosa

10:30 Artisautza azoka, Eroski parean

11:00 Toka eta bote txapelketa, Erreka tabernan

17:00 Haur dantzaldia

18:30 Herri kirolak frontoian

20:00 Sardina jatea frontoian

Bidebieta Institutua

Serapio Mujika k., 31. Tf.:943390240 DONOSTIA


www.bidebieta.com

- Inglesa multimedia
- Eskaintza osagarriak: ordenailuen bideko diseinua, EGA, ikas gela...

Berri-berriak:

- Zikloetarako batxilergoa, 1. eta 2. Kurtsoak
- Informatika zikloa euskaraz.
- Merkataritza zikloa+merkataritza elektronikoa

- Ingurumen Kimika (goi mailakoa)
- Informatika (goi mailakoa)
- Laborategia (erdi mailakoa)
- Merkataritza (erdi mailakoa)



Euskaraz eta gaztelaniaz